




Goian, Bartzelonako ikuspegi orokorra Montjuicetik. Behean, Gaudiren lau eraikuntza ezberdin eta Baxartzelonako portua.

Mila hiri itsasertzean

Itsasoak, bi mendi-muinok eta kolore aniztasunak ezaugarritzen dute hiri olinpikoa

GORKA EROSTARBE

Mila aurpegitako hiria da Bartzelona. Kai girokoa eta bihurria batzuentzat, argiaren eta modernismoaren hiria beste-tzuentzat. Bere baitan bildua eta probintziakoa zenbaitentzat, kosmopolitismoaren eredu gailen beste hainbatentzat. Azken urteetan arabiar, pakistaniar, karibear eta filipinar kolorez, eta espezia usainez jantzi da hiri literario eta olinpikoa, bere ohiko ikutu modernista koloreanitzta batere galdu gabe. Bartzelonan ororentzat dago lekua, eta batez ere, berritasunaren arrastoa daraman ororentzat. Mendetan zehar iristen zen orori nondik zetorren galdetu gabe ongietorria ematera ohitua egonik, badirudi Kataluniako hiriburuak gogo onez hartzen dituela kultur, arte, pentsamendu, gastronomi, teknologi eta gainontzeko joera berriak. Metropoli bat izan eta Mediterraneoa egoteak berezi eta bakar bilakatzen du Bartzelona. Itsasora begira jarri behar zuela otu zitzaion, eta ez da gelditu lortu duen artean; Orain Mediterraneoa piasaia urbanistikoaren osagarri bat gehiago da. Hiria, ia ohartzeke, itsasoko uretan barneratzen da Ramblen bitartez.

Bartzelonako hiri guztiak, eta ez dira gutxi, elkar-ukitu eta elkar bizi egiten dute. Kale estu eta bihurritz osaturiko hiri gotikoa, Cerdák Eixamplerako asmatutako hiri kuadrikulatua, Barceloneta –oraindik bizirik dirauen arrantzaleauzoa–, 1992tik aurrera osatu eta biribil-uriko hiri olinpikoa, hiria ingu-



Bartzelonako auzo gotikoko ohiko kaleetako bat.

ratzen duten herrixka eta auzo elkar-lotuak: Gràcia, sant Andreu, Sants ... eta hiriaren zeltan dauden bi mendi muinak: Montjuic, zeinak kultura eta aisialdi bideraturiko magal bat eta itsasoari so dagoen hilerri bat duen beste magal bat dituen, eta Tibidabo, bere dorre karkail eta beste garai bateko jolas-atrakzioekin.

Bartzelonako egonaldiaz gozatu eder bat hartu nahi duen hark ezinbestekoa du, gutxie-

nez, jarraian apaitzera goazen lekuok bisitatzea.

RAMBLETAKO ESNATZEA

Hiria nagiak kentzen hasten denean, prentsa kioskoak goizeko lehen egunkariak saltzen dizkiete oraindik goiztirian erosi ez dutenei. Lore eta txori saltzaileek beren postuak zabaltzen dituzte eta ordu luzeetan atsedetik ez duen jende saldoaren zalaparta jostariari hasiera ematen zaio. Atzealdean, itsasoa.

GÜELL PARKEA ETA PEDRERA

Irudimen eta talentu erakusgarri bat. Gaudi handiaren obrari soaldi berri bakoitzeko kolore eta forma osakera desberdinak ediren ohi dira. Deus ez da dirudiena eta zentzumenek engainatu egiten gaituzte parke majikoaren forma bihurriak direla kausa. Ezaugarri horiek guztiak biltzen ditu La Pedrerak eraikuntza bakar batean.

PASEO GOTIKO BAT

Hiri gotikoko kale eta bazter ezkutuetan galtzea esperientzia bikaina suerta daiteke, sinesgaitza dirudien arren, auto eta presen burrunbatik aldentzea mantentzen baita oraindik. Pi enparantza bere eliza gotiko eta rose-toi bikainarekin, Sant Josep Oriol enparantza, Katedrala eta Txillidaren eskulturak dotoretzen duen Erregearen enparantza dira besteak beste hiri gotikoko erakargarritasun haundietakoak.

LIZEOA ETA MUSIKA KATALANAREN JAUREGIA

Bartzelonako kulturaren eta bereziki musikaren bi erakusgarri nabarmen. Lehena, ikurra esfortzuaren eredua. Bigarrena, adibide modernista ederrenetako bat. Kanpokaldeak ikusgarria bada ere, barnekaldeko elementu eta ñabardurak eder anitzek aho zabalik utz dezakete sineskaitzena ere.

BARTZELONAKO HONDARTZAK

Zazpi dira eta hirigunean bertan kokaturik daude. Hiria gutxietan heldzen dira etorbide nagusi, ibilbide eta kaleak hondarretaraino; Bartzelonan hori gertatzen da eta lanera doazenak

Non, zer

Non lo egin

- **Regina hotela:** Hotel erosoa. Hiriko gune gehieneak oinez bisitatzeko puntu estrategikoan kokatua.
- **Castello Center hotela:** Ronda de Mijaresen kokatua. Baldintza egokiak eta zerbitzu onak prezio ertainean.
- **Golfeko hotela:** Pinar hon-dartzaren ondoan kokatua. Hiru izar eta zerbitzu osoa.
- **Doña Lola hotela:** Erdiguneko Lucena kalean kokaturik. Kalitate-prezio erlazio ona.

Non jan

- **Bilbao jatetxea:** Perill kalea, 33. Tel: 934 589 624. Batanaz besteko prezioa: 3.500 pezeta (140 libera inguru).
- **Falomir jatetxea:** Paseo Buenavista, 25. Tel: 694 282 280. Batanaz besteko prezioa: 5.300 pezeta (212 libera inguru).
- **Eleazar jatetxea:** Ximenez kalea, 14. Tel: 964 234 861. Batanaz besteko prezioa: 3.700 pezeta (148 libera inguru).
- **Casa Mercedes mesoia:** Segorbe kalea, 51. Tel: 964 250 945. Batanaz besteko prezioa: 1.000 pezeta (40 libera inguru).

eguzkia hartzera doazenekin egin dezakete topo.

ITSASO ETA MENDI IRUDIAK

Aukerak badira bartzelonan itsas nahiz mendiko paraje, bista edota eszena politak ikusi edota irudikatzen dire. Itsasoko Ramblaraino joanez, hiriak Mediterraneoarekin bat egiten duen gunea ikus liteke, zeinetatik Bartzelonari oles egiten dioten itsasontziak begizta daitezkeen. Tibidabo mendi gainetik aldiz itsasoaren edertasun osoa eta hiriaren mugikortasuna atzeman daitezke aldi berean. Lehen bista goizaldekoa da, bigarrena gualdekoa.